

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Anjel Elorza Beitia

Legutio, Araba
(1937)

Aurkibidea



Biografia



Familia gerratik ihes eginda zegoela jaio zen Duranan, baina San Roke auzoko baserri batekoa da eta etxe berean bizi izandakoa. Aita etxekoa eta ama otxandiarra zen. Bederatzi anai-arrebatatik bat Laudion hil zen gerran; beste anaia bat, mutikotan Legution gerran ahaztutako bonba batekin jolasean, bonba lehertu zenean hil zen. Baserriko lursailik onenak Urrunaga urtegiko urpean geratu zirenean, Gasteizera joan zen lanera. Sanchiz Buenoren tailerrean hasi zen, eta bertako beste sei langilerekin Imeba kooperatiba sortu zuten. Honek porrot egin zuenean, Michelinera joan zen lanera eta bertatik hartu zuen erretiroa. Mañariako Rosario Bernaolarekin ezkondu zen eta bi seme-alaba biki dituzte.

Zintak

LEG-010

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-04-21
- **Iraupena:** 94 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

Pasarteak

1. Gerra Zibilean etxetik ihesi jaiotakoa

- **Erref:** LEG-010/002
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:01:12. **Bukatu:** 00:03:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

<p>Bere etxeok Gerra Zibilean Duranara joan ziren ihesi eta bertan jaio zen Angel. Etxera bueltatu zirenean, etxea guztiz hondatuta topatu zuten.</p>

2. Eskolara bizkarrean hartuta eraman behar

- **Erref:** LEG-010/005
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:05:23. **Bukatu:** 00:06:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskolako maistra galiziarra zen, doña Pilar. Aitarekin gurdiarekin solora edo basora joatea gustuko zuen eta askotan ez zuen nahi izaten eskolara joan eta amak bizkarrean hartuta eramaten zuen.</p>

3. Txapela ez kentzeagatik atentzioa deitu

- **Erref:** LEG-010/008
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:08:40. **Bukatu:** 00:09:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

<p>Eskolako mutikoak desfilean eskua altxatuta 'Cara al Sol' abestu behar izaten zuten. Behin desfilean zihoazela, behiak uztartzen zegoen gizon bati atentzioa deitu zion maisuak beraiek pasatzerakoan txapela ez zuelako kendu.</p>

4. Txirikolan jolasten

- **Erref:** LEG-010/009
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:09:44. **Bukatu:** 00:11:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Eskola garaian pilotan eta txirikolan jolasten ziren. Txirikolan batez ere nagusiagoak aritzen ziren erre`dean; zelan jolasten zen azaltzen du.</p>

5. "Inkien" jolasten

- **Erref:** LEG-010/011
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:11:38. **Bukatu:** 00:12:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Eskolako jolas-orduan mutilak eta neskak aparte jolasten zuten. Mutilak batez ere frontoian egoten ziren. "Inkien" ere jolasten zuten, jolas horri buruzko azalpena ematen du.</p>

6. Behi-uztarriak

- **Erref:** LEG-010/014
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:14:19. **Bukatu:** 00:15:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Idiak baserri gutxitan egoten ziren. Uztarrían behiak izaten zituzten. "Brabantea" (goldea) erabiltzeko bi behi-uztarri erabiltzen zituzten; idiak zituztenak idi-uztarri bakarrarekin ondo moldatzen ziren. Erreka inguruko lurrak nahiko arinak ziren, geroagokoak gogorragoak.</p>

7. Arto-irina zertarako?

- **Erref:** LEG-010/016
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:16:42. **Bukatu:** 00:17:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Artoarekin irina egin eta arto-ogia, taloa eta morokila egiten zituzten. Txerriek eta oiloek ere jaten zuten. Txerri bat edo pare bat hazten zituzten etxean.</p>

8. Arropak errekan eta "alkarka"n garbitu

- **Erref:** LEG-010/019
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:24:08. **Bukatu:** 00:26:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

<p>Etxean ura izan arte baldeetan ekartzen zuten ura iturritik. Arropak errekan garbitzen zituzten. "Albarkie" ere bazuten, teilape batean zegoen eta bertan putzua zuten. Hiru bat albarka zeuden herrian: Santa Marina bidekoa, Sandurdikoa eta Madalenakoa. Behiek ura edateko askak ere bazituzten.</p>

9. Bideak

- **Erref:** LEG-010/020
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:26:57. **Bukatu:** 00:28:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:

<p>Arropak garbitzeko garbitokien ("albarken") ondoan behiek ura edateko askak ere bazeuden. Horietako bideak eta gainerako beste bide batzuk, tartean urpean daudenak ere, egiten zuten ibilbidea azaltzen du.</p>

10. Urpeko lursailak

- **Erref:** LEG-010/024
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:30:04. **Bukatu:** 00:31:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

<p>Urtegia egiterakoan lur asko urpean geratu ziren, baita beraienak ere. Baserri askok lursail guztiak galdu zituzten. Momentuan lan asko egon zen, baina gero ez lanik ez lurrik. Baten batzuk ordezeko lurrak hartzeko aukera izan zuten, baina lursail eskasagoak ziren.</p>

11. Ehotzeko lizentzia eta estraperloan erro tara

- **Erref:** LEG-010/026
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:32:03. **Bukatu:** 00:35:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Lanbideak » Polizia
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Patata, artoa, garia... batzen zuten. Udaletxean ereindakoaren ehuneko zehatz bat entregatu behar izaten zuten. Ereindakoaren arabera erro ta ehotzeko lizentzia ematen zieten. Gopegi inguruko Muruko erro tara joaten ziren astoz. Zehaztutako kopurua bukatutakoan, estraperloan joan behar izaten zuten; orduan Mekotelara (Otxandio) joaten ziren. Guardia zibilak erro tara egiten zituzten bisitak.</p>

12. Gramola

- **Erref:** LEG-010/030
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:38:48. **Bukatu:** 00:39:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

<p>Herriko plazan izaten zuten musika gaztetan. Taberna bat zegoen eta tabernako ugazabak zuen gramola eta domeka arratsaldetan jartzen zuen.</p>

13. Maturana familiako musikariak

- **Erref:** LEG-010/032
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:39:57. **Bukatu:** 00:41:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>Jaietan filarmonika edo jazbana ekartzen zuten. Maturana familiako hiru anaik instrumentu bana jotzen zuten eta beraiek ere aritzen ziren.</p>

14. Urtegiak eraikitzen hasi zirenekoa

- **Erref:** LEG-010/036
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:50:03. **Bukatu:** 00:51:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

<p>Urtegiak noiz bete ziren. Berak zortzi-hamar urte zituela egin zen Albinakoa eta gerora, handik bizpahiru urtetara, besteak. Albinako urtegian bere anaia bat aritu zen lanean eta Angel joaten zen bertara bazkaria-eta eramatera. Urrunagakoan ere aritu zen anaia hori lanean.</p>

15. Urtegia eta zubiak egin zituzten enpresak

- **Erref:** LEG-010/038
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:52:02. **Bukatu:** 00:53:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

<p>Goiko urtegia Ugarte izeneko enpresa batek egin zuen. Albinako urtegiaren goiko partean harrobia egin zuten eta handik ateratako harriekin egiten zituen zubiak Uriarte enpresak.</p>

16. Urtegia ganean zutenak etxetik derrigorrean irten behar

- **Erref:** LEG-010/041
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:54:58. **Bukatu:** 00:56:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

<p>Urtegiko ura ganean zutela etxetik aterarazi zituzten batzuek. Hainbat familiak ez zuten etxetik irten gura izan.</p>

17. "Dragatza" otea txikitzeko

- **Erref:** LEG-010/046
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 01:06:51. **Bukatu:** 01:08:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

<p>Auzoko andre batek ganaduari jaten emateko otea txikitzen zuen. Otea txikitzeko "dragatza" erabiltzen zuen. "Dragatza" zer den eta otea zelan txikitzen zuen azaltzen du.</p>

18. Otea behiek jateko

- **Erref:** LEG-010/048
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 01:09:02. **Bukatu:** 01:10:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

<p>Auzoko batek txikitutako otea behiei ematen zien jateko. Horrekin eta pentsuarekin nahiko ondo elikatuta egoten ziren. "Herri-ganadua", baso-behiari, behi gorriari deitzen diote; animalia ugaria zen inguruko basoetan.</p>

19. Otea igitaiarekin ebaki

- **Erref:** LEG-010/050
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 01:11:02. **Bukatu:** 01:12:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

<p>Auzoko batek txikitutako otea ematen zien behiei jateko, basoan zuen

otea. Otea zelan ebakitzen zuen azaltzen du, gogorra izan arren igitaia erabiltzen zuen.</p>

20. Esne-saltzaileak Gasteizera

- **Erref:** LEG-010/053
- **Iraupena:** 0:03:56. **Hasi:** 01:15:38. **Bukatu:** 01:19:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

<p>Otxandiotik Gasteizera bi esne-saltzaile joaten ziren. Legution ere hauek batzen zuten esnea goizero. Gasteizen bezero batzuk finkoak ziren eta esne-saltzaileak garraiatzeaz baino ez ziren arduratzen. Aparteko jeneroa garraiatzeaz ere arduratzen zen; izan ere, etxerantz zetorrenean, errekaduak egiteaz arduratzen zen: ardo-zahagiak, herriko denda eta tailerrek behar zituzten gauzak...</p>

21. Palekin Otxandiotik Legutiora arteko bidea garbitu

- **Erref:** LEG-010/057
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 01:20:58. **Bukatu:** 01:22:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Natura » Meteorologia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Elur asko egiten zuenean ez zegoen errepideak garbitzeko makinarik. Negu batean, hilabete luzez egon ziren esnea saldu ezinik, ezin Gasteizera eraman. Orduan, palak hartuta auzolanean garbitu zuten Otxandiotik Legutioraino arteko errepidea.</p>

22. Auzobeharra

- **Erref:** LEG-010/063
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 01:31:37. **Bukatu:** 01:32:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Auzobeharrean hainbat lan egiten ziren: egurra garraiatu, bideak eta basabideak... Gizonezkoek hartzen zuten parte.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-04

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com